

Zenbakiak



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

2023ko atarian, 2022ko zenbakiak protagonismo berezi bat hartzen dute; izan ere, urte aldaketarekin batera, beti saiatzen gara kontagailua zeroan jartzen. Errealitate likidoen aroan, zenbakiak ere gure aditasunetik desagertzen dira —askotan izugarriko abiaduraz—, eta eraldatu ere eraldatzen dira. Segur aski, saiakera huts batez, gogoan gorde ditudan zenbakiak zuekin konpartitu nahi nituzke. Zoritxarrez, ahanzturaren aurkako borrokan, somatzen dut beti orainak irabazten duela.

Orain dela egun batzuk, Auzitegi Gorenak 23 pertsonaren hilketari buruzko ikerketa bertan behera utzi du, eta ondorioz, ez da epaiketarik izango. Baina, agian, hori ez zen hildakoen benetako kopurua, eta egiazki, lotsaren mugan, gutxienez, 72 pertsona erail zituzten Melillako hesian. Han geratu ziren izenik gabeko iheslariek ez dute ezta zenbakien eskubiderik ere; are gutxiago, justizia.

Azaroan, Espainiako Gorteetan Espainiako Erresumaren aurrekontuak onartu zituzten 187 botorekin. Edozein

Guardia Zibilaren zuzendariaren arabera, diru horrekin historiako agente kopururik handiena izango dute: 82.692 guardia; ez da kopuru makala


aurrekontutan, zenbakiak oso adierazgarriak dira, baina gastu batzuk ezkutatuturik geratzen dira batzuetan. Esaterako, ozta-ozta atzeman daiteke zenbat diru jasoko duten armadak, Poliziak eta Guardia Zibilak datorren urtean.

Aurrekontuak onartu baino lehenxeago, NATOk buruzagiek agindu zioten Espainiari BPGren %2 gorde behar zela gerrarako. Espainiako Gobernuak, morroi txintxoek bezala, ehuneko hori gainditu du, eta azkenean BPGren %2,7


gastatuko du datorren urtean estatua- ren indarrak elikatzeko. Beraz, Defentsa Ministerioaren harrapakina %26 handituko da, eta Espainian egunero 75,5 milioi euro gastatuko dituzte armetan eta indar armatuetan.


Margarita Roblesen esanetan: “Defentsan inbertitzea bakean inbertitzea da”. Eta horrelako argudioekin, Madrillgo Kongresuko Hego Euskal Herriko 20 diputatuk aurrekontuen aldeko botoa eman zuten. Hain zuzen ere, EAJ, EH Bildu, PSE eta UPko diputatuek. Ondorengo egunetan, Guardia Zibilaren zuzendariaren adierazpenen arabera, diru horrekin historiako agente kopururik handiena izango du institutu armatuak: 82.692 guardia; ez da kopuru makala.

B. Brecht-ek berriro asmatzen du: “Hiltzeko modu asko daude. Labana bat sar diezazukete sabelean, ogia ken diezazukete, edo gaixotasun bat sendatu gabe utzi, etxebizitza kaskar batean sar zaitzakete, suizidiora bultza zaitzakete. Hil arte torturatu zaitzakete lanaren bidez, zu gerrara eraman, e.a. Gauza horietako gutxi daude debekatuta gure estatuan”. ●



HIRITIK AT
Lurraldegintzarako koordinatu berriak





HIRIGINTZA
TOKIKO GARAPENA
AHOLKULARITZA
ESTRATEGIKOA

BDSkoop, IRUN | Wikitoki, BILBO
622609129 | hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus